

O EGUBERRI-GAUA



Mari Louise Guimon Ford irakasleari,
Elizondoko kantaldia oroituz



uela urte batzuk Hendaiako kantari talde batek argitaratu zuen diska batean "O eguberri-gaua" herrikantatzat; baina badakigu herrikantatzat erabiltzen direnak ere noizbait egileren bat izan zutela, denborarekin ahoz-ahoa batetik bestera erabiliaz bere jatorri zehatzaren lekukotasuna galduarren.

"O eguberri-gaua" bertsoz hasten den honek ere bazuen bere egilea, lehen aldiz Ziburuko Joanes Etxeberri idazle aipatuak 1630garren urtean Noelak zeritzan liburab argitaraturik agertzen baita.



Liburu horren berrargitaratzea adiskide Xabier A r a n b u r u hondarribiarri zor diogu, 1970ean b e r e zuzendaritzapean zeraman Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. zeritzan argialetxe hartan A. Lino Akesolo zenaren hitzurre j a k i n g a r r i z plazaratu bai zuen.

Esan beharra dut 1983an Hondarribiara bizilekuz aldatu nintzenean ohartu nintzela hemengo zahar batzurenzat, Hendaiakoak bezala, kanta ezaguna zela eta gaztaroan Eguberri maiz kantatua.

Aurtengo udaran Elizondon, pintura erakusketa ikus ondorean, Marin ahizpekin bere baratzean bildu ginelarik, han zen Ezpeletako Marie Louise Guimon irakaslea ere. Eta honek erakutsi zizkigun Lapurdiko mintzairaren edertasunak eta bere ohoretan laurterazko zenbait kanta gogoratu nizkiolarik uste gabeko kantari taldea osatu genuen han. J.B. Elizanbururen "Ikusten duzu gozian" delakotik "Iragan besta biharamunean" delakora arte eten gabe jardun ginen. Horien artean J. Etxeberriren "O Eguberri gaua" ere.

Ohartu nintzen kantok baztandarrentzat ez zirela arrotz, bereziki "O eguberri-gaua", baina Marie Louise lapurtarra izaki eta bera zen kanta horien bertsorik gehienak zekizkiena. Geroztik idatziz ere igorri dizkit.

Hemen Hondarribian garai batean zaharragoek Eguberri kantatu izan duten hau pozgarri litzaiguke gazteagoek berentzat hartu eta berpiztuz irauaraziko baluteke, gure herri honek bere erroak ez ditzan gal.

Arestian aipatu dudan Noelak liburua 54-55. orrialdetan dator kanta bere osotasunean, Joanes Etxeberri "Nola Salbatzaillea sorthu zen gauean gauza guztiak boztu ziren" izenburupean eman zuena da, guztira hamalau bertso osatzeb dute eta, norbaitzurik luzeegi ez iruditzeke, bertatik ondoko zortzirik hautatu ditut. Hara hemen:

O Eguberri-gaua
bozkariozko gaua:
allegeratzen duzu
bihotzean kristaua

Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen:
zergatik baitiozu
Salbatzaillea ekhartzan.

Gau illhunean ezta
ageri iguzkirik:
hunetan dakusagu
mirakuluz ilkhirik.

O gau desiratu
zuzia duzu piztu,
zeñak mundu guztia
behar baitu argitu.

Arraňak ere iaui
ziren paguz urean:
abreak basoan eta
egaztiňak airean.

Gauza guztiak dire
gau hunetan pagutzen:
orobat egitera
gaituzte gonbidatzen.

Berzerik eztao
deus ere ihardetsi
haur batek dituela
baizen ixilarazi.

Ixildu behar zuten,
guk ordainez kantatu,
zorionean dela
lainko-Semea sorthu.

JUAN SAN MARTIN